

Eduardo Chillidari Eusko Ikaskuntza- Euskadiko Kutxa Saria emateko ekitaldia

1999ko urriaren 15ean Donostiako Miramar Jauregian Eduardo Chillidak Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa Giza, Kultura, Artea eta Gizarte Zientzien saria eskuratu zuen. Sariaren bostgarren edizio honetan, Eduardo Chillidarekiko miresmena adierazi nahi izan zuten Eusko Ikaskuntzak, Unibertsitate guztietako ordezkariak, Nafarroa zein EAEko agintari politikoak eta bertan bildutako kultur jendea. Artearen alorreko norbaiti hiru milioi pezetako sari hau estreinako aldian ematen zelarik, Euskal Herriko kulturari eginiko ekarpena ezagutu zitzaion eskultoreari.

Gipuzkoar eskultorea 1924. urteko Donostian jaio zen. Madrilen arkitektura eta eskultura ikasketak jaso ondoren, 1948an Parisen finkatu zitzaigun. Harrezkero erakusketetan parte hartzen hasi zen, baina oraindik figuratibismoaren barnean. 1951. urtean Euskal Herrira itzuli-



Donostia, 98.10.15 Juan José Goiriak Eduardo Chillidari Saria ematen dion momentuan.

rik, burdinaren lantze tradizionala ikasi zuen, bere estiloa gauzatzen zen heinean. Berrogeita hamargarren hamarkadan Madril, Milan, Berna, Paris, New York, Venezia eta Chigagoko erakusketetan parte hartu zuen, nazioarte mailako euskal artistarik ezagunena bihurtuz.

Erantzunak bilatu baino galderak egitea xede duen Chillidak, gizon eta artista eredu-garritzat aurkeztu zuten hizlari gehienek. Mondragonko Unibertsitateko errektorea den Javier Retegik, sarituaren abangoardiko hizkuntzak iraultza ekarri zuela euskal kulturara eta arte mundura gogoratu zuen ekitaldia irekiz. "Estetika hori sentibera eta konpromizuz betea da, bai bere inguruarekiko, bai bere herriarekiko eta baita inguruko pertsonekiko ere. Estetika horrek ikusezina ikusten erakutsiz. Bere analisi metodoa etengabe galderak egitean datza, nahiz eta sarritan erantzunik ez jaso. Chillidari inspirazioa bere herria eta honen ohiturak sakonki ezagutzetik dator. Ezagutza hori da bere artearen sekretua gordetzen duena, eta aldi berean bere edukiak hizkuntza eskultorikoaren bitartez adierazteko balio direnak. Chillidak lana egiten du, galdetuz, erantzunez eta sortuz".

Antonio Purroy, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreordeak jarraitu zuen Chillidaren maisu lanak eta hurrengo belaunaldiak eskeinitako ereduaz azalduz. Michelle Mestrot, Paue eta Adour Herri-aldeetako Unibertsitateko ordezkariak ordea, sarituaren dimentsio internazionalaz mintzo egin zuen. Bere obrak munduko hiri garrantzitsuetan ikusi ahal daitezke, Paris, Venezia, New York, Londres, Berlin, Erroma, Tokio, eta abar luzea; hainbat herrialdeetako arte instituzioengandik saritua izanez ere. Honengatik, munduak Chillidaren sortze-lanak jasotzen duen elean, mugarik gabeko gune batean bihurtzen da. Ondoren Nafarroako Unibertsitateko zetorren Manuel Casado errektoreordeak ere, Chillidaren unibertsitateaz azpimarratu zuen, "atzerrian gure artistak jasotako sariengatik eta, bere artea lurralde honetan sakonki sustraitua egonik, ezaugarri integral baten jabea delako eta ezaugarri honek ahalbideratu diolako bere osotasun eta berezkitasunean baloratua izatea, muga oro gaiturik".

Chillidak bere bizitza osoa eman du hausnarketa eta sorkuntzaren alde, EHUKo errektore Pello Salaburuk gogora ekarri zuen moduan, eta autodidakta izanez, inguruko gauzak sakonki ezagutu eta ulertzeko etengabeko ahaleginak egin ditu. Horretarako oinarrizko baldintza batzuk bete behar izan ditu gure autoreak: bizitzeko gogoak, lan egiteko ilusioa eta gauzak ondo egiteko irrika, adierazi zuen Salaburuk. Chillidak irakatsi digunez, etorkizunean arrakasta izateko, inguruan ditugun gauzak ezagutzea, ondo ikastea eta prestatzea ezinbestekoak dira eta, hortik aurrera, berritzeko eta hobetzeko gauza izan behar dugula, gaineratu zuen.

Hitzaldi guztietan hunkigarriena, Deustuko Unibertsitateko errektorea den José María Abrego de Lacyk eman zuena izan zen. Chillida bera aulkitik altxa zen hura besarkartzera. Bibliaren exegeta hau gure sortzailearen obraren inguruan iradokizun metaforikoen bitartez Chillidaren irudia iruzkindu zuen. Chillida unibertsalki ezagutua izatearen gailurrera iritsi bada hiru bertuterengatik izan dela azaldu zuen: fedea, esperantza eta maitasuna. Fedea porrotari aurre egiteko, esperantza berrogeiko hamarkadako gizarte atzerakoian aurrera begiratzeko adorea izan zuelako eta maitasuna sormen lanari ziolako.

Eusko Ikaskuntzako lehendakari bezala Juan José Goiriena de Gandariasen hitzek artistaren hautaketa sarirako aberasgarria izateaz gain, artea zientziarekin bat egiten zuela gogoratu zuten. "Chillida, apala sorkuntza-lanean, argi bereziz ageri zen euskal artisten espektruan eta are argi bereziagoz luzatzen du gaur egun bere eragina, mundu osora. Euskal izaeran errotua, bere lanaren bitartez herri zahar honen muina eta etorkizunerako itxaropena irradiatu ditu. Eduardo Chillidaren curriculum-ean irakur daitekeen bezala, Eusko Ikaskuntzako kidea da, 1977tik. Bazkide izateak eskatzen duen euskal gizartearekiko konpro-



Donostia, 98.10.15 Aretoaren egoera Saria emateko ekitaldian.

mezua bete betean eraman du Chillidak, artista izan nahi zuen erabaki zuen unetik. Eusko Ikaskuntzarentzat ohore bat da, Elkartean beraren gisako bazkideak izatea”, gehitu zuen ekitaldiaren anfitrioiak.

Ondoren Eduardo Chillidak bere ahaideek lagundurik saria jaso zuen, hitzaldi umoretsuarekin eskertuz. “Diskurtso handi bat egin nahi nuen baina etxean utzi dut”, esan zuen, ulertaraziz han entzun zirenak nekez gaudituko lituzkeela berak. “Izorratuta nago, begia lehertuta daukat”. Berriki begi batean egin zioten ebakuntza, azkenaldian izan zituen beste osasun arazo batzuei gehitu zitzairen, baina hala ere umoreko zegoen. Esker oneko hitzak baino ez zituen izan bertaratuentzako eta hitz apal eta laburrekin bukatu zuen bere hitzaldi laburra: “Eskerrik asko besteen gauzak estimatzeagatik, batzuetan hori ere oso zaila izaten baita”.

Juan Maria Otaegi, Euskadiko Kutxako lehendakariak, Chillidak bere herriarekiko duen maitasunak baldintzatu duela azaldu zuen. “Parisen zela erabaki zuen Euskal Herrira itzultzea eta horrekin euskaltasunera, bere barnera eta ezagutzen ez zuenera itzultzea izan zen eta hortik atera zen bere unibertsaltasuna”. Bere herriarekiko maitasun horrek, badu, hala ere, arantza bat: euskaraz ez jakitea. Nahiz eta euskara ez menderatu, euskaldun petoa sentitzen da, bere ikasle denboran idatzitako bertso hauek eskultorearen filosofia laburbiltzen dutelarik: “Nere herri zaharrari, nere aberri gazteari, nere lan osoa, bihotz bihotzez opa diot”. Otegi ere Chillidaren emakumea, bere *alma mater*aren garrantzia, gogora ekarri zuen, legez, “Chillida Pilarrik gabe ez litzateke gaur egun dena izango”.

Nafarroako Gobernuaren izenean Juan Ramón Corpas-ek bere estilo poetikoan Eduardo Chillidaren izaera gogora ekarri zuen. Gauza guztien gainetik, gure artistak bere obran irudikatzen den artea eta bizitzan izan duen koherentzia goraiatu zuen. “Zenbat eta beteago, zenbat eta apalago”, Joxemiel Barandiaran zenaren hitzak ekarri zituen hizpidera Juan José

Ibarretxe, EAEko Lehendakariak, Chillidaren umiltasuna goraiatzeko. “Bizitzeko gogoia, lan egiteko ilusioa eta gauzak ondo egiteko irrika” dira Chillidaren ezaugarri, Ibarretxeren hitzetan, eta ezaugarri horiek, aldi berean, euskal nortasunaren eta euskal gizartearen eredu ere behar duten izan. “Chillidak ondo irakatsi digu etorkizunean arrakasta izateko inguruan ditugun gauzak ezagutzea, ondo ikastea eta prestatzea ezinbestekoak direla, baina hortik aurrera berritzeko eta hobetzeko gauza izan behar dugula. Chillidak bere bizitza osoa eman du ausnarketa eta sorkuntzaren alde. Autodidakta osoa izan da eta inguruko gauzak sakonki ezagutu eta ulertzeko etengabeko ahaleginak egin ditu horretan oierraturrik ezer ez zegoen tokian zer bait berria sortzeko”.

Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa Giza, Kultura, Artea eta Gizarte Zientzien sariaren garrantzia jasotako beste hainbat eta hainbatekin parekatu behar dugu: Milango Hiru Urterokoan ohorezko domina (1954), Kandinski (1960), Carnegi Institute (1964), Wilhelm-Lehmbruck (Diusburg, 1966), Nordheim-Westfalen (Dusseldorf, 1966), Andrew W. Mellon (1979), Europa (1983), Príncipe de Asturias (1987). Leku guztien artean, Euskal Herria eta bere sorterriko Donostia da berari omenaldia egiteko ingururik paregabea. Miramarreko Jauregitik gertu *Fleming-i omenaldia* (1955, 1991 jarrita) deritzon eskultura daukagu eta, Kontxako badiaren muturrean, hiriaren eta Euskal Herriaren sinbolorik esanguratsuenetariko bat, *Haize orrazia* (1977).

Roldán Jimeno Aranguren